

Euskal gizaki autoalternatiboa sozioekonomian (II. atala)

Jabier Lertxundi

Ekonomia Zientzietan doktorea, Gestión del Conocimiento ITZARRI SLLren koord.

Uztaro 59an argitaratu zen artikuluaen ildo beretik, honetan gure gizartearentzako autoalternatiba autogestionarioa hainbat arlotan garatzeko hausnarketa sakona egiten da. Kasu honetan aztertutako gaiak merkatua, esku-hartze administratiboa, funtzio sindikala eta kapitalaren mugimenduak izan dira. Aurrekoan egin zen legez, erabilitako metodologia berdina izan da; hots: kapitalismoak, sozialismoak eta autogestioan oinarritutako esperientziek esparru honetan dituzten ekarpen garrantzitsuenak jaso, eta aldi berean, autoalternatibaren baitan erabilgarriak diren euskal nortasunaren ezaugarriak identifikatu ditugu.

Continuing with article published in nº59 of Uztaro, in this reflection is made deep on the autogestionary way to socialize some aspects relative to the Autoalternativa. Concretely we talked about the Market, the Administrative Intervention, the Syndical Function and the Movements of Capital. As previously, in this time too has been used the comparative methodology; so that in the analysis of the Autoalternativa those had interesting contributions are included in Capitalism, the Socialism and Autogestionary Experiences, along with the interesting characteristics for these socioeconomics aspects and that come directly from Basque races.

Uztaro 59an argitaratu zen “Euskal gizaki autoalternatiboa sozioekonomian” I. atalari jarraituz, ondoko orrialdeetan euskal gizaki autoalternatiboa beste arlo ekonomikoan nola kokatzen den aztertuko dugu. Hala nola merkatu, esku-hartze administratibo, funtzio sindikal edota kapitalaren mugimenduei dagokienez.

Merkatua

I. atalean garatu genuen legez, II. atal honetan ere kapitalismo, sozialismo, autogestio nahiz euskal sustraien ikuspegietatik aztertuko ditugu gaien ezaugarriak.

– Teoria kapitalistaren ustez, merkatu askeak produkzio-askatasuna bermatzen du. Horrela, gizarteak desiratutako produktu interesgarrienak merkaturatu daitezke, eskaera eta eskaintzaren legea merkatu-arautzaile erabiliz.

Sistema liberalari eginiko funtsezko kritika bat da administrazioaren esku-hartze ezaren ondorioz (*laissez-faire*) birbanaketa oztopatua izatea. Esplotazio modu horri *kapitalismo basati* deritzogu eta azken hamarkadetan AEBren buruzagitzapean jarraitutako joera gisa identifikatzen da.

Bestalde, merkatu askeak gizarteak benetan beharrezko duena produzituko balu, produktu horien aukeraketa pertsonala izan dela onartu beharko genuke. Baina gure arteko eztabaidetan argi antzeman da kontsumoarekiko hautaketa askea ez dela egia eta gizakiok gehienetan sortu berri diren beharren arabera kontsumitzen dugula. Egoera horrek eskaerari eta eskaintzari naturaltasuna kentzen die, eta gizakiongan ondorio mingarriak sortzen ditu, gaixotasun sozioekonomikoei dagokienez.

Horrela, iragarkien bonbardaketa ikaragarriaren ondorioz eta marketin-teknikak erabiliz kontsumo amaigabea bultzatzen da eta pertsonok babesgabe gelditzen gara. Giza naturaren joera hau gainditzeko, kontsumo arduratsuen kontzeptua definitu beharko genuke, hau da: zelan ulertzen dugu kontsumo arduratsua merkatu kapitalista baten barnean?

Kapitalismoan kontsumoaren muga norberak jarri ohi du, indibidualki; beraz, elkartasuna alboratzea erraza izan daiteke, erabakia pertsona batena delako eta bere gaiatsun ekonomikoaren baitan aurkitzen delako.

Bestalde, eskaera eta eskaintzaren legeak ez du merkatua arautzen, bestela nola uler daiteke diru publikoarekin Atzerriko Inbertsio Zuzenak gauzatzea multinazionalen inbertsioetan eta bestelako ekintza pribatuetan? Beraz, nabarmena da eskaera eta eskaintzaren iruzurra; lege horren azpian ezkutatzen dena jabetza soziala esku pribatuetara pasatzeko ahalegina da, gizartearen gaitzespena ahalik eta txikiena izatea zainduz.

Ikuspegi horretatik begiratuta, merkatu kapitalistak jabetza pribatuak behar duen esparru ekonomikoa osatzen du. Era horretan pribatizazioa arlo guztietan sartzen da, baita errekurtsu naturaletan ere, esaterako, lurra, ura, airea, itsasoak, mendiak... Jabetza soziala izan beharrean, pribatu bihurtzen da eta merkatuko

negozio handienak sortzen dira, hala nola argindarrarena, harrobiena, ur-kudeaketarena, eta abar.

– Merkatu sozialista —barne-merkatuari dagokionez— gizartearentzako oinarritzko produktuen bermean oinarritzen da; kanpo-merkatuaren kasuan, ardatza bidezko merkatuan aurkitzen da. Zentzu horretan, abiapuntua K. Marx-ek adierazitako balioaren teoria litzateke:

La utilidad de un objeto lo convierte en valor de uso. Pero esta utilidad de los objetos no flota en el aire. Es algo que está condicionado por las cualidades materiales de la mercancía y que no puede existir sin ellas. Lo que constituye un valor de uso o un bien es, por tanto, la materialidad de la mercancía misma (Marx, 1973: 4).

La relación más simple de valor es, evidentemente, la relación de valor de una mercancía con otra concreta y distinta, cualquiera que ella sea. La relación de valor entre dos mercancías constituye, por tanto, la expresión más simple de valor de una mercancía (Marx, 1973: 15-16).

Beraz, merkatu sozialista ez da eskaera/eskaintzan oinarritzen, ezta merkatu askean ere. Helburua, gainbalioa produkzio-prozesutik desagerraraztea da; horrela, lurralde sozialistetako enpresek elkarren arteko harreman ekonomikoak garatzen dituzte nazioarteko bidezko trukearen arabera¹.

Hala ere, itxuraz elkertasunean oinarrituriko hazkunde ekonomikoa bermatzeko gai izan beharko lukeen sistemak, garrantzi handiko bi arazo sortu ditu. Lehenbiziko arazoa produkzio-arloan aritzen diren pertsonen motibazio falta da, eta bigarrena, bidezko merkatuak herri azpigaratuen baitan ezarritako mende-kotasun-egoera litzateke.

Merkatu sozialistak sortutako beste arazo bat, merkataritza-gaiek duten balioaren eta gainbalioaren funtzioa ulertzean datza; izan ere, prezioa ez da kalitatearen eta kantitatearen arteko harremanagatik jartzen, baizik eta administrazioak erabakitako ekonomia nazionalaren premia orokorren arabera.

Bestalde, motibazio falta pertsonen inplikazio ezarekin erlazionatuta dago, eta berrikuntza-maila eskasa izatea eragiten du. Ondorioz, sistema kapitalistaren eta sozialista zentralizatuaren artean sekulako aldea dago garapen teknologikoari dagokionez, eta elkertasun sozioekonomikoaren ikuspuntutik oso zaila egiten da hori justifikatzea. Honek guztiak herri sozialistetan produktuen kalitate eta aniztasun falta eman izana ekarri du.

Edozein modutan ere, onartu beharra dago merkatu sozialista zentralizatuan oinarritzko produktuen eta beste hainbaten birbanaketa bermatzen dela. Gainera, doako hezkuntza eta osasuna eskaintzen da; horren ondorioz, sistema horren barnean bizi direnen bizi-kalitatea hazi egin da.

– Esperientzia autogestionario garrantzitsuenei buruz aritzean, merkatu-izaeraren arabera (kapitalista/sozialista) kontzeptu ezberdinak sortzen dira.

1. Elkarren Laguntza Ekonomikorako Kontseilua (ELEK, ingelesez COMECON eta gaztelaniaz CAME) orain arte bidezko merkataritzan egondako sistema zabalena izan da.

Adibidez, sistema kapitalistaren barnean ezarritako autogestio erreformistak enpresa-pragmatismoaren menpeko estrategia ekonomizistak erabiltzen ditu. Beraz, bi sistemen arteko hirugarren irtenbide bezala planteatzen dena, sistema kapitalistaren barnean erabat integraturiko azpisistema bilakatzen da.

Gainera, esan beharra dago multinazionalen esperientzia kooperatiboan administrazioaren parte-hartze zuzena izan zela garapena bermatzeko. Horrela, azpisistema hau sistema neoliberalaren edozein enpresa bezala jaso ahal da.

“Mondragón Corporación Cooperativa” (MCC)-ren kasua, sistema neoliberalaren barnean garatutako azpisistema kapitalistatzat jasotzen dugu; esperientzia autogestionario sozialista sionistak eta beste batzuek ere antzeko bidea egin zuten, betiere sistema kapitalistaren itzalean kokatuta.

Beste batzuetan, esperientzia autogestionarioak merkatu sozialistaren barnean garatu dira. Kasu horietan, denon jabetza eta estatu-jabetza nahastu ziren eta zentzu autogestionarioa galdu.

Salbuespen batzuk izan dira, baina horien garapena ezinezkoa izan da. Jugoslavian adibidez, aspektu zentralizatuak eta indibidualak elkartu ziren. Adibidez, produktibitatearen igoeran sustapen ekonomikoak erabili ziren; ez, ordea, sustapen moralak.

Aipatu beharrekoa da Espainiako II. Errepublikan jasotako esperientzia anarkista: Aragoiko komunitate libertarioak. Iraultza ez zen bermatu, denbora laburra iraun zuelako.

Hala ere, iraultza horrek arlo sozioekonomikoan sortutako arazo batzuk ebatzi zituen, adibidez, txanpon-sistemaren berrikuntza, trukea jorratuz eta txanpon normalaren erabilera murriztuz.

Gaur egun, interesgarria den esperientzia autogestionario sozialista bat Kuban daukagu. Estatuaren nekazaritza-ustiapenak Ekoizpen Kooperatiboaren Funtsezko Unitate (EKFU) bihurtu dituzte. Kooperatiba berri horiek sozialismo autogestionarioaren pentsamendua jorratzen dute, eta onartzen dituzte, batetik, indibidualtasuna, eta, bestetik, zentralizazioa .

Kooperatiben eta administrazio zentralaren arteko harremanak inbertsioetan, finantzaketetan eta diru-laguntzen elikagai merkatu produkzioan mugatzen dira. Bestaldetik, kooperatiba hauek estatuaren sail teknikoagatik laguntza jasotzen dute.

Kuban sortutako modu autogestionario hauek ez dira beste sektore batzuetara moldatu, nahiz eta zerbitzu-sektorean bakarrik lan egiteko aukera ematen duten lizentziak sortu izan diren. Kanpoko Inbertsio Zuzena (KIZ) ere onartzen dute Kuban eta modu kapitalistan oinarritzen diren enpresa mistoak sortu dituzte, zeinetan administrazio sozialistak akzioen % 51 jasotzen duen.

Edonola ere, autoalternatiba izan nahi duen edozein esperientzia autogestionariok, lehenago aipatutako kontsumo arduratsuen kontzeptua sakondu beharko luke. Baina nola definituko genuke kontzeptu hori autoalternatibaren ikuspuntutik? Nazioarteko errealitatea aztertuta, nabarmena da teknologikoki garatuagoak diren

lurraldeetan sutatzen den kontsumo arduratsua luxu lortezina dela teknologikoki atzeratuagoak diren lurraldeetan. Azkenik, esan beharra dago mugak merkatuetan bermatu beharko lirakeela eta ez kontsumoetan, horrela, gure habitat naturalaren deuseztapena eta oreka psikologikoan sortzen digun arazoa saihestuko genituzke.

Pertsona batzuek uste izango dute proposizio honek ekimen indibiduala garatzeko aukerak kentzen dituela, baina ulertu beharra dago ezen garapen teknologiko gutxiagoko lurraldeetan lurralde garatuetan egin diren produkzioak eginez gero, munduko baliabideak agortuko lirakeela eta mundua desagertzeko arriskuan legokeela.

Gure taldeko eztabaidetan argi geratu da merkatu askea ez litzatekeela sortu behar; izan ere, horren arauketaren ondorioz, baliabide naturalak eta ahal den neurrian baliabide naturalen ugaritze-prozesua bermatu beharko lirakeke. Horrela, kalitate sozioekonomikoan oinarritutako bizitza bermatuko litzateke, baina ez, gero eta maila ekonomiko handiagoa lortzean hobeak egiten gaituen ideian oinarritua.

Hala ere, eztabaidetan guztiz azpimarratzen dena hau da: merkatu librearen ezeztatzea ez dela errentagarri eta probetxuzkoa izan daitekeen edozein produkzio egitea, betiere, naturari kalteak sortzen ez badizkio. Autoalternatibaren ustez, ekimen pribatuak autoestima pertsonala eta soziala bermatzeko oso baliagarriak diren balioak eskaintzen ditu, naturari errespetua eta guztion honerako egiten ari diren eskakizunak betez gero.

– Euskal nortasunaren ikurren ikuspegitik, auzoko sisteman jarri dugu arreta, auzolanak egiten zirelako elementu sozioekonomiko bilakatuz. Auzolanaren garrantzia handia da Euskal Herriaren historian. Lurraldearen orografia menditsua dela eta, baserrien arteko komunikazioa oso neketsua izaten zen. Baserrien arteko erlazioa ez zen sakona. Barandiaranen ustez, eratzeko modu isolatu haren eraketa sozioekonomikoa guztiz eraldatu zen hurrengo belaunaldietan:

Con la evolución del pastoreo y, sobre todo, con la dedicación de las familias a otro modo de existencia –a la agricultura, a la artesanía, a la metalurgia en sus varios aspectos- vino un mayor asentamiento de las mismas en lugares fijos y su mayor adhesión a una tierra y a un albergue (...) En tales modos aparecen más marcadas las relaciones de vecindad (Barandiaran, 2000).

Auzoko sistemaren ezarpena Euskal Herrian, gizakia finkatu zenekoa omen da. Auzolana betidanik ezagutu den auzokideekiko elkartasuna bultzatzen duen ekintza da, beharra duten pertsonen laguntza eskaintzeko.

En la vida del pueblo siempre han sido muy importantes las relaciones con los vecinos; sin duda, el trato ha sido y es más intenso que en las ciudades. Así el vecino más cercano era considerado como pariente. Por eso, era tradicional que cuando se enfermaba el dueño de la casa, los vecinos le ayudaran en los trabajos del campo. Lo mismo sucedía en las defunciones, nacimientos, pérdidas de ganado... Los vecinos han sido los encargados de ayudar en estas tareas y no hacerlo era considerado sinónimo de escasa calidad humana. Así pues, si alguien se ponía enfermo, o cuando una madre daba a luz, se le visitaba en casa y se le llevaba un pequeño obsequio. Era habitual llevar leche, miel, chocolate o pastas.

Hoy todavía perdura la costumbre de realizar algunos trabajos comunales entre la gente del pueblo: como el cierre de los campos, la limpieza de las calles y acequias, el arreglo de averías... A estos trabajos en común se les llama auzolan o auzalan que significa "trabajo vecinal" porque se hacen entre todos los vecinos, compartiendo tareas. Una de las tareas era la limpieza del bosque².

Amaitzeko, auzolana tresna gisa erabili izan da, auzokideen arteko harremana sakontzeko. Adibide gisa, auzokide batek etxeko teilatua konpontzeko komunitatearen laguntza jasoz gero, komunitatearekin bete beharreko zorra ez-idatzia zuen.

Edonola ere, sistema neoliberalaren aurrerakuntzak eragin zuzena izan du euskal auzoko sistemaren atzeratze-prozesuan, gehienetan soziopolitikoki nabarmentzen da sozioekonomikoki baino gehiago.

– Merkatu libreari zein merkatu sozialista zentralizatuari dagokienez, autoalternatibak ezaugarri hauek zehazten ditu:

- Kontsumoaren mugak zehazten dituen nazioarteko legedia bermatu beharko litzateke, eta gizakiaren eta baliabide naturalen kontrako ekintzak txikitu.
- Autoalternatibaren merkatua denontzako hobekuntza bultzatzen duen edozein ekimen pertsonaletan bermatu beharko litzateke, eta lehenago aipatu den erregulazioa errespetatu.
- Beharrezkoa da gizartea osatzen dugunon baliabide ekonomikoak bermatzea, birbanatzeko eran, administrazioaren ekintza zuzena ematea.
- *Autogestio zentralizatuaren* esanahiari dagokionez, autogestioa lortzen da kontsumo arduratsua bermatuz, eta zentralizatua izango da birbanaketa eginez gero.
- Gaur egun irauten duten auzoko sistema ekonomikoek gaitasuna ematen dute merkatu autoalternatibo hau sakonago ulertzeko.

Esku-hartze administratiboa

Ohiko sinesmen ekonomikoari jarraituz, administrazioaren parte-hartzea eta herrialde bateko ekonomiaren ezaugarritze publikoa aurkako ertzetan kokatzen dira. Hots, zenbat eta ekonomia publiko gehiago, orduan eta estatuaren parte-hartze handiagoa.

Baina teoria hori ez dator bat errealitatearekin; izan ere, administrazio neoliberalak diru publikoa jaso eta modu pribatuan inbertitzen du; administrazio sozialistak, ordea, era publikoan inbertitzen du. Beraz, bi sistemetak administrazioek ekonomian esku hartzen dute baina modu ezberdinean.

Aztertutako esperientzia autogestionario batzuen kasuan, administrazioak babesa eman eta sustapena bultzatu du, beraien egituraketan parte hartuz. Beste kasu batzuetan, administrazioaren eragina eskasa izan da.

2. www.ctv.es/USERS/valdeollo/ubicacion.htm

Adibideekin jarraituta, egungo euskal nortasunaren ikurrek ere autoeraketako antzinako modu hauek garatzea ahalbidetu dute.

– Teoria liberalaren ustez, estatuaren parte-hartzea ordena publikoa eta ekoizleen produkzio-askatasuna bermatzera mugatu beharko litzateke. Egungo fase kapitalistaren baitan, ekoizleek aberasteko duten askatasunaren izenean, aipatutako teoriak onargarritasun maila handia dauka. Estatuak berak asmo kapitalistak jaso eta azken hamarkadetan aurreko estatu sozialaren oinarriak ahultzen joan dira. Eman dezagun gai honetaz dauden hausnarketan berri:

El Estado es necesario, porque debe diseñar y hacer cumplir las normas que garantizan una conducta adecuada por parte de los individuos, y porque debe resguardar el orden en que éstos pueden actuar libremente. Más allá de esto, la intervención del Estado afecta la libertad e introduce, como ocurre con la planificación, distorsiones en el desenvolvimiento de las sociedades, y será ineficaz porque carece de las motivaciones que movilizan a los individuos en su vida cotidiana³.

Teoria liberalaren ustez birbanaketa soziala ez zen inolaz ere gauzatu behar (kristau karitatearen testuinguruan soilik). Beraz, birbanaketa kapitalista zalantzan jarri ezean, hainbat GKEk nahiz erakundek, elkartasuna eredutzat harturik, diru publikoa jasotzen jarraituko dute. Baina esku-hartze mota hori estatuaren aurrekontuen zati txiki bat besterik ez da, eta gainera sistemaren aurka aritu diren lurraldeek sistema horretara hurbiltzeko nahia ezkutatu dute.

Bestalde, aipagarria da kapitalismoan izandako administrazioak izandako esku-hartze nabariena ez dela zerga zuzenetan oinarritu, baizik eta zeharkako zergetan, hots, kontsumoaren gainean eta batik bat osasunerako komenigarriak ez diren hainbat produktutan, adibidez, tabako, alkohol eta erregaien gaineko zergek diru kopuru handiak dakartzate, zerga zuzenek lortzen ez dituztenak.

Beraz, zeharkako zerga horiek ordaintzen dituzten pertsonak ez dira ezberdintzen duten ondareagatik, baizik eta kontsumo-ohiturengatik. Berriz, diru hori jasotzen dutenak (administrazioaren esku-hartzearen ondorioz) nepotismoarekin, bezerokeria politikoarekin, alderdi politikoen finantzaketarekin eta beste hainbat ekintzarekin erlazionatzen dira; hori guztia herritarren dirua erabiltza, noski.

Esan genezake, estatuaren esku-hartzea ekidin nahi duen teoria liberala ez dela erabat betetzen. Errealitatean, beti eman ohi da aipatutako esku-hartzea, baina zoritxarrez aberastasun gehien duen sektorearen onurarako.

– Sozialismo zentralizatuari buruz aritzean ikusten da herritar guztientzako gutxieneko sozioekonomikoak bermatu nahi dituela, jaki zein zerbitzuen birbanaketa eginez eta ez aberatsen aldeko administrazio-politikak aurrera eramanez (Gramsci, 1919), hain zuzen.

Hori lortzeko, ekonomiaren planifikazio zentralizatua behar da (bost urteko planak), eta ondorioz, administrazioak enpresa-zuzendaritzaren erabateko zentralizazioa gauzatu du. Horrez gain, ezinbestekoa da aurretik egituratutako adar produktiboen araberrako enpresa-korporazio handiak sortzea.

3. Ikus www.glocalrevista.com.

Gutziz zentralizaturiko eskema horretan, sindikatuak ere administrazioaren baitan kokatzen dira, langileen ordezkari bakar gisa arituz eta Lenin-en teoriarekin bat eginez (Lenin, 1972: 417-426).

Haatik, eta birbanaketa ekonomikoa gertatuta ere, badaude administrazio zentralarekin identifikatzen ez diren langileak, zeinei utzikeria edo alperkeria leporatzen zaien. Beste batzuetan nagikeria horretatik erresistentzia gogorreko jarrerak hartzera igarotzen dira.

Sistema horren barnean dauden pertsona askok, birbanaketa-eredu horrekin bat etorri arren, ez dute ezkututzen erabateko zentralizazioak banakoaren ekimenari oztopoak jartzen dizkiola.

Horregatik, herrialde horietan enpresa ertain eta txikiaren garapena oso eskasa izan da, estatuak egituratu ezin dituen hainbat zerbitzu eskaintzeko behar den autonomiarik ez duelako. Nekazaritzan ere baimendu ziren deszentralizatutako enpresa molde batzuk, nekazarien arteko lur-banaketa eta lurrarekin duten erlazio estua direla eta.

Nekazaritzari dagokionez, enpresa-antolaketa deszentralizatuak sortu dira nekazaritza-erreforma dela kausa (nekazarien artean lurra banatuta) eta nekazariak lurrarekin duten atxikimendua dela kausa.

Dena den, sozialismoaren helburu sozioekonomiko nagusiaren harian, hots, berdintasunaren ildoan, azpimarratu beharra dago administrazio zentralaren lanari esker denon behar minimoak asetzen direla⁴.

Hori dela eta, kapitalismoan edo sozialismoan esanahi desberdina du soldataren kontzeptuak; izan ere, zentralizatutako ekonomietan estatuak etxebizitzako gastuen portzentaje handia (argia, etxea, ura) bere gain hartzen du, baita hezkuntza, osasuna, kultura nahiz beste oinarrizko gastu askoren gehienak ere. Beraz, lurralde sozialistetan soldatak herritarren arteko elkartasuna bultzatzeko funtzioa betetzen du.

Elkartasun sozioekonomikoaren ezarpenak barne-produkzioa ekipo-ondasunetara nahiz behar minimoak betetzera bideratzen du; ez, ordea, kontsumora; horregatik, merkatu kapitalistarekin alderatuta produktu-aniztasuna oso urria da.

Gainera, estatu zentralizatuetan garatutako moneta-sistemaren ondorioz, txanpona barne-merkataritzarako soilik erabil daiteke. Nazioarteko merkataritza-harremanak, berriz, estatuaren administrazio zentralaren esku gelditzen dira, birbanaketa-sistema bermaturik geldi dadin.

4. Ikus Che Guevara, *Che y la Economía*, Ciencias Sociales, Habana, 1993; Obras Completas: *Consideraciones sobre los costos de producción como base para el análisis económico de las empresas sujetas a Sistema Presupuestario*, II. lib. (202-219. or.); *Sobre el Sistema Presupuestario de Financiamiento* (251-286. or.); *La Banca, el Crédito y el Socialismo*, (286-308. or.) Casa de las Américas, Habana, 1970. Baita ikus liteke ere Lenin, V.I., *El Valor, La Plusvalía y El Socialismo*, I. Tomo, Obras Escogidas, (303-313. or.) Editions de la Librairie du Globe, Paris 1972, eta II. liburukian, *Las Bases Económicas de la existencia del Estado*, (150-164. or.).

Gaur egun, nazioarteko merkatu sozialista desagertu zenetik (ELEK), lehenago aipatutako hainbat ezaugarri aldatu dira, eta ondorioz, ez dugu adierazitako ezaugarri sozioekonomikoak erabat betetzen dituen zentralizatutako lurralderik aurkituko.

Taldeetan eginiko eztabaidetan soldataren gaia gatazkatsua izan da. Egia da soldata sinbolikoak inplikazio eza sor dezakeela sistematik at sentitzen direnen baitan. Sistema kapitalistan, oro har, ez da horrelakorik gertatzen, soldataren funtzioa behar minimoak asetzearaino oinarritzen delako, motibazio-funtzioan, alegia.

Produkzio-aniztasuna aztertzean antzekoa gertatzen da, eskasia nahiz diru kopuru urria izatearen ondorioz, kapitalismoaren idealizazioa gertatzen da.

Nazioaren mugen barnean mantentzen den moneta-sistemari dagokionez, (herritar gehienek ezin dute beste moneta batera aldatu), nazio-monetaren balioa murriztu eta inflazioa handitu egiten duela ondorioztatu da; arrazoen artean, globalizazio ekonomikoa eta beste moneta batean kontsumitzeko nahia azpimarratu behar dira.

– Esku-hartze administratiboan izandako esperientzia autogestionarioak modu askotan garatu dira, nagusitu den ideologiarekin erlazionatuta. Kapitalismoarekin bat egiten duten esperientziek estatuaren administrazio politikoa onartzen dute, nahiz eta autonomia administratiboaren bidean talde korporatiboak sortzen saiatzen diren. Horiek aurretik zabalduetako sentimendu kooperatibista ordezkatu dute, eta beraz, kooperatibismotik korporatibismora igaro direla ondoriozta daiteke.

Igarobide horretan, kooperatibetako bazkideen artean bazkide ez direnekiko (behin-behinekoak, eskumendeko enpresak...) esplotazio-mentalitatea nagusitu da. Hau da, lehenagoko langileen arteko elkartasuna norberekeria burges bihurtu da.

Aitzitik, esperientzia autogestionarioak sistema zentralizatu batean garatzen direnean, pertsonen arteko borondatezko elkartasuna erlatiboa da. Hala ere, horretan sakontzen duten pertsonek gainerako herritarrekiko nahiz munduekiko elkartasun-sentimendua izan ohi dute.

Dena den, administrazioaren esku-hartzea hain nabaria da ezen administrarien lana izan beharko lukeena ere betetzen duela. Argi dago administrazio zentralizatuak nahita nahasten duela ikuskatzaile-funtzioa enpresa-kudeaketarekin.

Beste hainbat esperientzia autogestionariok administrazioaren esku-hartzea baztertu eta “askatasun-guneak” sortu dituzte. Horietako askok mundutik isolatzen dira eta taldeko norberekeria besteenganako elkartasunari gailentzen zaio. Zentzu horretan ere kutsu korporatibista nabaria da.

Egia esateko, ezagututako esperientzia autogestionarioak (Jugoslaviar autogestio sozialista barne⁵), “estalki-sistemak” izan dira, hau da, ez dira izan

5. Nahiz eta kudeaketa zentralizatutik autogestiora pasatu, Bigarren Mundu Gerran izandako bi pertsonalitate handien desadostasunean dugu oinarria. Izan ere, autogestioa garatzeko beharra Stalin eta Tito-ren arteko ika-mikatik sortutako sistema izan zen. Sobietar Batasunak Jugoslaviari ezarri zizkion eragozpenak gainditzeko sistema, hain zuzen ere.

osotasunezko sistemak, baizik eta tokian tokiko egoera zehatzen aurreko irtenbideak, harago joateko asmorik gabeak.

Hori bai, autogestio sozioekonomikoa alternatiba bideragarritzat nahiz orokortzat hartuta badago, egin beharreko galdera hurrengoa da: posible ote da alternatiba garatzea administrazio zentralizaturik gabe? Elkartasunezko autogestioa bultzatu nahi badugu, erantzuna ezezkoa da. Baina esan beharra dago administrazioak pertsonen parte-hartzearen eredu izan beharko lukeela, txandaketa-sistema erabiliz geure burua autoantolatze bidean.

Beraz, administrazioa deszentralizatu beharko litzateke baina birbanaketarako duen funtzioa mantenduta. Horretarako ezinbestekotzat jotzen da nazioko zein nazioarteko harreman-sistema sendoak sortzea.

– Eztabaida euskal nortasunaren ikurrek sistema autogestionario baten barneko esku-hartze administratiboan izan duten eragina aztertzea igaro denean, ikerketa-eremua kofradia edota ermandadeetan kokatu da.

Elkarte edo kofradiak auzokideen artean elkarri laguntzeko ikurrak izan dira Euskal Herrian. Kofradietan maila sozial bereko erakunde sozioekonomikoak biltzen ziren, hainbat helburu komun lortzeko asmoz eta tresna mutualistak erabiliz. Horrela arrantza, artisautza, nekazaritza zein politika-munduan kofradiak sortu ziren, elkartasunezko testuinguruari jarraituz. Horien artean arrantzaleenak nahiz nekazarienak nabarmendu beharko genituzke izandako garrantzia dela kausa; segur aski, nekazarienak izan dira kofradiarik zaharrenak, zeintzuetan izurrite nahiz uzta txarren ondorioz eratorritako galerak konpentsatzeko helburuak jartzen ziren. Sistema hori bizirik mantendu da orain gutxi arte:

Al igual de lo que aconteció con las tierras comunales y los sindicatos bajonavarros, es el régimen liberal, amparado en la supresión de los fueros (1789-1876), el que introduciendo la perentoriedad de la propiedad privada, destruye por su base esta antiquísima institución agraria. Antes de la guerra de 1936-1939 persistían, a este lado del Bidasoa, y sólo en Guipúzcoa, cerca de 400 agrupaciones de este tipo; en Vizcaya 330⁶.

Beraz, argi dago kofradia edo ermandadeen eta antzinako euskal kultura komunitarioaren artean badagoela jarraipenik. Estornes-ek aipatu bezala, eredu sozioekonomiko horrek euskal lurak pribatizatu ziren arte iraun zuen, foruak desagertu arte alegia (1789-1876).

Horrek adierazten digu arrazoibide liberal modernoak herri-lurren desamortizazioarekin jabetza pribatuaren nagusigoa inposatu nahi zuela, aurretik modu komunitarioan kudeatzen ziren baliabide naturalez jabetuz.

Gaur egun, euskal administrazio mutualistak ez du eraginkortasunik, nahiz eta berrindartzeko ahaleginak egiten ari diren. Dena den, elkarri laguntzeko sentimenduak zutik dirau euskal idiosinkraziaren baitan, adibiderako elkartzeko mantentzen dugun gaitasuna.

6. Testuan euskal kofradien inguruko azterketa egiten da.

– Administrazioaren esku-hartzea azterturik, autoalternatiba horrela ezaugarrituko litzateke:

- Administrazioa deszentralizatua izan behar da esperientzia autogestionario guztietan, eta komunitatearekin eta nazioartearekin koordinazio-ereduak sortu behar ditu.
- Elkarrekin izandako ohiko hierarkizazioaren ordez, parte-hartzean oinarritutako metodologia garatu beharko litzateke. Horretarako, pertsonen txandakatzea ezinbestekoa da, geure burua autoadministratzeko gaitasuna lortzeko.
- Administrazio kapitalistarekin erlazionaturiko esperientzia autogestionarioek autokudeatzeko duten boterea galtzen dute, eta korporatibizazioaren bidean jartzen dira. Administrazio sozialista zentraletan oinarritutako esperientzia autogestionarioetan ere ez da gaitasun autogestionarioa erabat gauzatu baina elkartasun-ezaugarriak mantentzen dira. Hortaz, alternatiba ezin da sistema horietan oinarritu, nahiz eta igarobidean errezagoa den sozialismotik abiatzea kapitalismotik baino.
- Gaur egun mantendu diren euskal nortasunaren ikurrek adierazten digute herri honek autoalternatibarako baliagarriak diren administrazio-ereduak gordetzen dituela.

Funtzio sindikalak

Sindikatuaren langileen taldea gai eztabaidagarria da kapitalismoarentzat. Izan ere, langileen indarra batzen duten talde hauek egiturak aldatu nahi dituzte, eta kapitalistek ekidin beharreko indartzat dituzte.

Bestalde, sozialismo zentralizatuan sindikatuen eragina nabarmentzen da, baina kasu horretan haien ideia politikoaren aldeko lana egiten da.

Aztertutako esperientzia autogestionarioetan aldaketa nabariak gertatu dira. Sindikatu plurala, ofiziala zein sindikatuzeko inolako aukera ez duten formak garatu dira, eta aukera handiagoak lortu dira zentzu horretan.

Hala ere, sindikatuen egoera, gaur egun, indefinizio maila batean dago sistema sozioekonomikoaren alternatiba izateko; lehenbizi, funtzio sindikalak aztertu beharko lirateke.

– Kapitalisten iritziz, sindikatuak ez dira behar eta, egotekotan, afiliatuei zerbitzua ematearekin nahiko litzateke langileen lan-baldintzak defenditu barik.

Los sindicatos impiden la movilidad del trabajo y la libre elección de los trabajadores en cuanto a plazas y salarios. El Estado debe retirar la legislación que los favorecen, en beneficio de la libertad⁷.

Hala ere, sindikatuak sailkatzean kapitalistentzat korporatiboak diren sindikatuak ez dute inongo arriskurik sortzen; bai, ordea, klase-sindikatuak.

7. www.glocalrevista.com

Hau dela eta, aurrekontu-bidean bereganatutako fenomenoak sortzen da, administrazioak dirua ematen dielako langileei zerbitzua eskaintzeagatik.

Ondorioz, sindikatuen funtzio zuzena ahaztu eta administrazioak babestutako elkarte bihurtzen dira, beraz, aldatu eta borrokatzen duten sistemaren alde egiten dute eta horrek sekulako kontraesanak eragiten ditu.

Sistema kapitalistaren barnean, klase-sindikatuak politikoki zuzentzen dira alde batetik edo beste alde batetik ezartzen direlarik. Orduan erraz nabarmentzen da sistema kapitalistaren barnean dauden sindikatuen mediatizazioa gertatzen dela.

– Mediatizazio hori dela eta, kapitalismoak sistema sozialista zentralizatuaren kontra eginiko kritika bortitza jasotzen da; izan ere, sistema sozialistetan existitzen den sindikatu bakarra boterea duen talde politikoaren interesak soilik defendatzen ditu eta ez dago beste sindikaturik.

Erazago adierazteko, esan daiteke kapitalismoan askatasun sindikala, politikoki jasotako edozein formatan gara daitekeela; sistema sozialista zentralizatuan, berriz, erabil daitekeen forma politiko ofiziala besterik ez dago.

Sindikatu sozialistak izateko Lenin-en “transmisio-uhala” erabakigarria izan da. Lenin-ek militantzia bikoitza eskatzen zuen, iraultzaileek sindikatua kontrolatzea eta zuzentzea posible izan zedin. Horrek ez du adierazten sindikatu horietan langileen interesak defendatzen ez direnik.

... en lo que respecta a las empresas socializadas, recae incondicionalmente sobre los sindicatos la obligación de defender los intereses de los trabajadores, de contribuir, en la medida de lo posible, a mejorar sus condiciones materiales de existencia, corrigiendo constantemente sus errores y las exageraciones en los organismos económicos, por cuanto estos errores y exageraciones se derivan de la deformación burocrática del aparato del Estado (Lenin, 1972:418-419).

– Esperientzia autogestionarioetan sindikatu iraultza baten barnean jasotakoa baldin baten, garrantzi handia jasotzen zuen sindikatuaren irudiak. Esperientzia sindikala kapitalismoaren barnean gertatuz gero, berriz, sindikatuaren formak ez zuen garrantzi handirik lortzen.

Beraz, aldaketa sozioekonomiko bat bilatzen den lurraldeetan sindikatuaren irudiak garrantzia du; beste sistema baten barnean gertatuz gero, ez da aldaketarik bilatzen eta sindikatuaren irudiak ez du garrantzi bera izaten.

Hortaz, sindikatuaren garrantzia txikiagoa zen lurraldeetan garrantzi handia lortzen hasi zen enpresari txiki esplotatzailearen irudia.

Gaur egungo globalizazio kapitalistaren barnean, langileen ustiakuntzak garrantzi handia du, jarrera guztiz inperialista jasotzen delarik, korporazio handiak ezartzen direlarik.

– Euskal nortasunaren ikurrei dagokienez, auzolana garrantzitsu da lurralde bereko jendeak osatutako talde-antolaketa aurrera eramateko asmoz, baina lurraldea pixka bat handiagoa denean eta esparrua handitzen denean, auzolanak erabilgarritasuna galtzen du.

Euskal nortasunaren ikurren garrantzia sindikatueta argi nabarmentzen da, batik bat aldaketak sortu nahi badira. Izan ere, ez da berdina ekonomia indibiduala lurralde naturalen eta denen eraketaren barnean jaso eta ulertzea edo, ekonomia globala norberekeria indibidualaren ikuspuntutik jaso eta ulertzea.

- Hauek dira autoalternatibaren ikuspuntutik lortu beharreko funtzio sindikalak:
 - Sistema kapitalistetako sindikatuak adi egon behar dute beti edo administrazioaren presio gogorraren pean eroriko dira. Horrek kontraesan handiak eragingo lituzke.
 - Zentzu horretan, langileei eskainitako zerbitzuak baino garrantzitsuagoa da sindikatu horren estrategia aldaketa soziala suerta dadin. Horrek langileen autoeraketa bultzatu beharko luke.
 - Sistema sozialista zentralizatueta sindikatua alderdi ofizialaren bidetik zuzentzen da, aldaketa dinamikoa lortu nahi baldin bada, sindikatuaren garrantzia ezinbestekoa da eta sistema zentralizatuaren sindikatuarekin aldaketa hori sindikalki behintzat ez da gauzatuko.
 - Sindikatzearen kontra egiten duten esperientzia autogestionarioek aldaketaren kontra egiten dute.
 - Bertako ekonomia da autoalternatiba sindikalaren oinarria, langileria da bere lurraldean ekonomia bermatzen duena, errekurtsu naturalak babestuta.
 - Egindako edozein esperientzia autogestionarioaren koordinazioan eta inguruan duten lurraldearen errekurtsu naturalen errespetuak baimenduko luke autoalternatiba. Koordinazio horrek emango liguke lehen funtzio sindikala.

Kapitalaren mugimenduak

Gaur egun kapitalismoan dagoen paradigma nagusietako bat kapitalaren mugimendu askean nabarmentzen da; eta finantzetarako kapitalak zein diruaren espekulazioak egun bermatzen dute sistema; izan ere, herri kapitalisten arteko harremana diruaren trukean oinarritzen da. Kapitala industrial finantza-kapitalak gainditu izan du eta sistema kapitalista aurrerakoiaren oinarri bihurtu da.

Horrela, globalizazio kapitalistaren defendatzaile amorratuenek diotenez nazioen aurrerakuntza bermatzen duen oinarria da kapitalaren mugimendu-askatasuna. Moneta horien balioa aldatu egiten da, lurralde horien merkatuaren ahalbidea dela eta.

– Hori dela eta, diru-moneta sakonki barneratuta duen gizarte batean bizi gara, non ez den herrien produkzio-ahalbidea jorratzen, baizik eta kontsumo-ahalbidea. Horrela, gizarte kapitalistan zarrastelkeria eta handikeria dira sortu eta gorantz doazen kontrabaliok dira; aurrezteak eta apala izatea, berriz, balio guztiz atzerakoiak dira garapeneko gizarte kapitalistan. Ondorioz, espekulazioaren aldeko apostua egiten du sistema kapitalistak, gizarteari egiten dion kalteari erreparatu gabe.

Beraz, finantza-kapitala da sistemaren ardatza. Herri askok ez dute baliabide natural askorik eta, beren erreserbak mantendu nahirik, beste lurralde batzuetara joaten dira; lurralde horiek mendean hartuta kanpo-zorra eragiten diete, horrela sistema kapitalistaren gailurrean daudelakoan.

Hori dela eta, estatu inperialisten Barne Produktu Gordinaren (BPG) neurketak ez du nazioaren produkzio-hazkundera islatzen, baizik eta kanpoko finantza-kapitalaren handitzea, bai kanpoko lurraldeetan sortu duten dirua dela medio bai beren lurraldeetan eginiko espekulazioa dela medio. Espainiar estatuan, adibidez, eraikitzeko lur-eremuetan argi nabarmentzen da espekulazio itsua gertatzen dela.

Hazkunde ekonomikoaren eredu horrek baliabide nahiz produktu manufaktura-tuak periferiatik sistemaren erdigunera daramatza, hots, Hirugarren Mundutik Lehen Mundura. Hortaz, BPGk ez du jatorrizko lurraldean hazkunderik islatzen, jomugazkoan baizik; izan ere, multinazionalen bulego nagusiak herrialde garratu-tuetan kokatzen dira eta bertako kontabilitatea erabat sendoturik aurkitzen da; hau da, hazkundera kontuak eramaten dituen herrialdean erregistratzen da.

– Baina garapen ekonomikoa sortzen duen sistema honetan arriskuan jartzen da planetaren egonkortasuna. Inperialistak horretaz ohartu dira, eta epe luzera ikusitako estrategia-planak sortu dituzte. Horri espazioaren konkista deritzogu; izan ere, estatu inperialistak beste planeta batzuk aztertzen ari dira, Lurreko errekurtsioak agortzen direnean, beste leku batetara joan ahal izateko.

Hurrengo hamarkadetan ongizatea lortzeko giza errekurtsioak bermatuko dira, errekurtsio naturalak gutxiago erabiliz. Baina hori ez da ulertzen zeren sistema honen irautea bermatzen duten osagaiak hauek baitira: gainesplotazio energetikoa eta finantza-kapitalaren nagusitasuna (nekazaritza, industria eta zerbitzuen gainetik).

Orduan edozein biztanlek duen arduraren nagusietariko bat da horrenbeste ibilgailu pribatuek sortzen dituzten ibiltzeko arazoak ekiditea edo hilaren bukaeran ordaindu beharreko banku, telefono edo energiaren kontuak ordaintzea. Pertsonen zorrak edo zor familiarak fenomeno geldiezinak dira honezkerok.

– Ulertu beharra dago, giza garapena bermatzen duen balioa ez dela indibidualtasuna, elkartasuna baizik. Egia da indibidualtasuna garrantzitsua dela baina egoera zailagoan aurkitzen den pertsona batenganako elkartasuna adieraztea askoz garrantzitsuagoa da.

Baina elkartasuna ez da bakarrik erlijioak bultzatu dituen oharrak, baizik eta birbanaketa ekonomiko justua lortzea. Elkartasunezko estrategia bermatzeko, lehenbizi, Hirugarren Munduko garapen teknologikoa garatu eta kanpo-zorra kendu beharko litzateke.

Autoalternatibak espekulazioa baztertzen du produktuen balioan oinarritzen delako, eta ez, berriz, produktu horien espekulazioarekin lortutako balioaren garrantzian.

Garapen jasangarriaren kontzeptua ezarri beharko litzateke, eta horrela sistema kapitalistarentzat aproposak ez diren gauza askorekin gertatu dena ekidin, hots, sistemarentzat komenigarriak izan ez diren hainbat kontzeptuk esanahia aldatua izatea.

Autoalternatibak ez du jabetza pribatua onartzen, nor du ura, airea edo luraren jabetza izateko eskubidea? Espekulazioa ekonomiaren oinarritzat duen sistema kapitalistak. Hori dela eta, espekulazioa baztertzen du autoalternatibak.

– Hauek dira autoalternatibaren ikuspegitik, kapitalaren mugimendu askearekiko garatutako hainbat ezaugarri:

- Hasteko beharrezkotzat jotzen dira apaltasuna eta aurreztearen balioak ezartzea, zarrastelkeria eta handikeriaren ordez.
- Ondoren, elkartasunaren balioa edukiko lukeen gizartea eraiki beharko litzateke, eta “pelotazoan” oinarritutako gizartea baztertu.
- Lurralde txiroetan pilatutako kanpo-zorra kendu beharko litzateke, behintzat behar-beharrezkoak diren gauzek eragindako kanpo-zorra.
- Lurralde kapitalistetan sortutako zor familiarak ere kendu beharko lirateke.
- Ulertu beharra dago ura, lurra eta airea denonak direla eta ez dagoela inor planeta honetan horiek ustiatzeko ahalmenarekin. Izan ere, horiek ustitzean denon kontra egin dezaketelako eta azken hori ez da batere justua.

Erabilitako siglak

AEB, Ameriketako Estatu Batuak

EKFU, Ekoizpen Kooperatiboaren Funtsezko Unitateak

GKE, Gobernu Kanpoko Erakundeak

MCC, Mondragón Corporación Cooperativa

BPG, Barne Produktu Gordina

ELEK, Elkarren Laguntza Ekonomikorako Kontseilua

Bibliografia

Barandiaran, J.M. (2000): *Curso Monográfico de etnología vasca*, Joxe Miguel de Barandiaran Fundazioa, Ataun –Gipuzkoa–.

Estornés Lasa, B. (1998): *Enciclopedia General Ilustrada del País Vasco* (XLVI. alea), Auñamendi, Donostia.

Gramsci, A. (1919): *El Estado y el Socialismo*, L' Ordine Nuovo.

Guevara, Che, (1970): *Obras Completas*: Casa de las Américas, Habana.

———, (1993): *Che y la Economía*, Ciencias Sociales, Habana.

Lenin, V.I., (1972): *Obras Escogidas*, Editions de la Librairie du Globe, Paris.

Marx, Karl., (1973): *El Capital (Tomo I)*, Editorial de Ciencias Sociales, Habana.

Web guneak:

www.ctv.es/USERS/valdeollo/ubicacion.htm

www.glocalrevista.com

